

«Orain Gipuzkoa» eta gipuzkoarrak

**Xabier Mikel
Errekondo**

EAJk eta PSEk osatzen duten Gipuzkoako Aldundiaren lema da “Orain Gipuzkoa”, herritarrengan eragiteko mezu eta irudi berria. Behar beste baliabide gipuzkoarrron pertzepzioak moldatzeko (AHT, Pasaiaiko Portua, erraustegia...), behar beste neurri Gobernu alderdien interesak defendatu eta boterean betikotzeko. Alderdien helburu gorena. Edozker du balio. Politika berria omen, gipuzkoarrekin bat egiten omen, baina hauteskunde programan egin aipua nahikoa zaie herrialdea hipotekatzen

duten proiektu erraldoiak zilegitzeko. Gehitu horri bigarren mailako proiektu hainbatekiko herritarrei zuzendu iritzi bilketa eta horratx duzu gipuzkoarrekin bat egitea zer den alderdiontzat. Bide beretik, Jaurlaritzak etengabe mailukatzen dizkigu belarriak medioetatik «Euskadi, bien común... Auzolana» mezuarekin «Kank-kank!». EAJk bere egin ote du Evo Moralesen Boliviaren eredua eta jarduera komunitario xumeena? Belarri minduek baina begiak are gehiago dituzte zabaltzen, eta ekin-

tzekiko urruntasun nabariak “Orain Gipuzkoa” irudi hutsa dela agerian uzten. Ondorioz, zab(a/o)rkeria politikoa nagusi den herrialdean, jendarte zibil antolatuak (GuraSOS eta EHUko Parte Hartuz) inizatiba hartu behar izan du gipuzkoarrak aintzat hartuko dituen Hitzartu dinamikaren bidez. Nago estrategikoak diren proiektuetan herritarrak aintzat hartu behar direla lau zutabeok bermatuko dituzten parte hartze prozesu zabalen bidez: informatu, eztabaidatu, erabaki eta erabakia errespetatu. •

Ez gutxietsi etxekoa

Maider Iantzi

Gua luzeena den goizean, kafea txistorrarekin gosaldut duzu, eguzkia indartzen hasten den momentua ere badelako. Trikitixa jarri dute ohiko musikaren ordezt, eta atximur egin dizu, oroitzapen pila bat ekarriz. Luzatu eta luzatu egingen zenuke gosaria, hemen nagoelako. IV. mendean hasi eta VII. menderako kristautua omen zegoen gure herria, baina kolonizazio horrek ez zuen lortu gure hizkuntza, euskara, desagertzea, ezta gure antzinako mintzaira ere, euskal mitologia. Berena ongi gordetzen ja-

kin zuten arbasoek eta, horri esker, XXI. menderaino heldu naiz. 1936ko sarraskia ere gainditu nuen, nahiz eta transmisioan eten handi bat eragin horrek. Indartsu sartzen zaizkigun moda eta ohiturek ere ez naute akabatzen. Loteria, turroia, kolonia, mila opari... Ez naiz hasiko horiek kritikatzten. Ezta herri guztietan berdina den Olentzero gero eta garbiagoa ere. Bakarrik erranen dut ez lotsatzeko etxekoaz, ez gutxiesteko kanpokoaren aitzinean, ezagutzeko bertakoa, galdetzeko zaharragoei. Hor auralituko nauzue, batez ere amatxi, izeba,

ama eta bertze hainbat emakumeren kontakizun harrigarrietan, euskal mitologiaren ezaugarri bat bere emetasuna baita. Lurra ama da eta ilargia eta eguzkia bere alabak. Eguzkia maskulino bezala hartu izan da, Mendebaldean erlijio patriarkalak nagusitu zirelako. Gaur egun munduan gutti dira mitologia patriarkalak eta horietako bat da gurea. Hori erakustera dator GAUR8 honetara Orantzaro begigorri, bihar nirekin Leitzako plazan elkartuko dena. Ongi pasa bestak! Eguberri ona opa dizu Marik (Leitzan, Maimur). •